



## **PRENTSA OHARRA**

### **Ikerl(h)ari podcastak ikusgai izango dira Hamaikan**

Otsaileko ostegunetan, 12:00etan eta 18:30ean, UEUk sortutako *Ikerl(h)ari* bideopodcastak emitituko dira Hamaikan. Ekimen honen helburua euskal ikertzaile gazteei ahotsa eta ikusgarritasuna ematea da, haien kezka, ibilbideak eta hausnarketak gizarteratzeko.

Ikerl(h)ari UEUk sortutako espazioa da, eta 60 minutuko bideopodcasten bidez, ikerlari gazteen eguneroko erronkak eta ikerketaren inguruko gai nagusiak jartzen ditu mahai gainean. Elkarrizketa formatuan, disziplina ezberdinetako ikertzaileen begiradak biltzen dira.

Saio bakoitzean gai zehatz bat landuko da. Hona hemen emisioen egutegia:

- **Otsailak 5:** Disziplinartekotasuna
- **Otsailak 12:** Motibazioa
- **Otsailak 19:** Begiradak
- **Otsailak 26:** Bidegurutzeak

*Ikerl(h)ari* podcastak otsailean zehar izango dira ikusgai Hamaikan, ohiko telebista emisio bidez eta baita [hamaika.eus/zuzenean](https://hamaika.eus/zuzenean) ere.